

97E/2025 EBAZPENA, abenduaren 12koa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako sektore pribatuko enpresetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko 2025eko laguntzak ordaintzea ebazten duena.

ERREFERENTZIA: Espediente kodea: 0011-1491-2025-000000

KUDEAKETA UNITATEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara
Tel.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako sektore pribatuko enpresetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko 2025eko laguntzak

Maiatzaren 13ko 58E/2025 Foru Aginduaren bidez, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako sektore pribatuko enpresetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko 2025eko laguntza deialdia eta haren oinarriak onetsi zituen.

Ondoren, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako abuztuaren 22ko 42E/2025 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdia ebatzi zen.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du dirulaguntzaren helburuak bete direla, dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak bete direla eta aurkeztutako agiriak baliozkoak direla.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du aipatutako laguntzak emateko.



Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren 3. eta 11. artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, eta azaroaren 9ko Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen arabera,

EBATZI DUT:

1. Ondoko laguntzak ordaintzea taula honetan jasotako toki entitate onuradunei:

Esp. Zbkia	IFZ	Izena	Aurrekontuko partia	Zenbatekoa
0011-1491-2025-000001	F31357320	MANUFACTURAS DEL ALUMINIO PAMPLONA SECTOR AUTOMOCION S. COOP. LTDA. MAPSA	G/B30002-B3200-4701-334100	33.047,53
0011-1491-2025-000002	A01325711	BIOSASUN, S.A	G/B30002-B3200-4701-334100	15.468,64
0011-1491-2025-000003	F71459424	EZTIBELTZA SOZETATE MIKROKOOPERATIBA	G/B30002-B3200-4701-334100	2.108,16
0011-1491-2025-000004	F31600240	TAFALLA IRON FOUNDRY S. COOP.	G/B30002-B3200-4701-334100	13.253,00
0011-1491-2025-000004	F31600240	TAFALLA IRON FOUNDRY S. COOP.	G/B30002-B3200-7709-334100	434,16
0011-1491-2025-000005	F71143796	1978 KOOPERATIBA SOCIEDAD COOPERATIVA	G/B30002-B3200-4701-334100	584,00
0011-1491-2025-000006	F31032451	EMBEGA S COOP	G/B30002-B3200-4701-334100	4.300,00

2. Ondoko taulan agertzen diren diru-kopuruak askatzea:

Esp. Zbkia.	IFZ	Izena	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
0011-1491-2025-000002	A01325711	BIOSASUN, S.A	G/B30002/ B3200/4701/334100	3.456,36
0011-1491-2025-000005	F71143796	1978 KOOPERATIBA SOCIEDAD COOPERATIVA	G/B30002/ B3200/4701/334100	156,00
0011-1491-2025-000004	F31600240	TAFALLA IRON FOUNDRY. COOP.	G/B30002/B3200/7709/334100	5,84

3. Ebazpen hau jakinaraztea aurreko zerrendako eskatzaile guztiei eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kontabilitate Zentrora, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera, bai eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera ere, bidezko ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urriaga

